

gaz-teak



Doako alea

310 Zb.

www.getxo.eus

getxoberri@getxo.eus

>> 2017ko otsaila

Nabarmen^{tzekoak}

> Makillaje eta karakterizazio tailerrak, Inauterietarako

> Sara Coterón eta Beatriz Sanchez-Serrano, oso pozik daude bere The RedMedia Productions enpresarekin, Wanted lehiaketaren ideia irabazletako bat

> Izen-ematea Euskadiko Gazteak Lankidetzan Programan

Sara Coterón eta Beatriz Sanchez-Serrano, oso pozik daude bere The RedMedia Productions enpresarekin, Wanted lehiaketaren ideia irabazletako bat

“Une eta toki egokian izan ginen”

Getxon egoitza duen eta 2016an abian jarri zen The RedMedia Productions marketing digital eta ikus-entzunezko ekoizpeneko enpresa da. Sara Coteronek eta Beatriz Sánchez-Serranok martxan jarritako enpresa proiektua da eta Udaleko Gazteria Zerbitzuak eta Sustapen Ekonomikorako sailak antolatutako Wanted Ideia Lehiaketaren irabazletako bat izan zen 2015ean. Sara eta Beatriz kazetariak dira Komunikazio Korporatiboan eta Ikus-entzunezko ekoizpenean adituak, hurrenez hurren. Biek aurretiko eskarmentu profesionala (hedabideetan, ikus-entzunezko ekoizpen-etxetan..) zuten, baina beraien proiektuak aurrera eraman ahal izateko, beren enpresa sortu nahi izateak ekintzaileen mundura jotzera animatu zituen biak.

Nola sortu zen zuen enpresa sortzeko ideia?

Elkarrekin zerbait hasteko gogoia genueneko une pertsonalean eta profesionalean geunden. Lagun batek Wanted Ideia Lehiaketaz hitz egin zigun eta aurkeztea erabaki genuen. Hainbat ideia desberdin eduki genituen eta merkatuaren ikerketa egin ondoren, ikusi genuen online bidezko komunikazioan toki bat eduki genezakeela, hain zuzen ere, *Community Management* alorrean.

Zer suposatu zuen zuentzat Wanted lehiaketaren sarietako bat irabazteak?

Egia esanda, enpresa arazo ekonomikorik gabe martxan jartzeko behar genuen bultzada izan zen. Gure proiekturako 5.000€ eta aholkularitza profesionala irabazi genituen. Asko ikasi genuen. Finantza proiektuarekin, gure ideia guztiak paperera pasatzera, eta galduta genbiltzan enpresa-ideia hartzera lagundu ziguten. Mota guztietako ikastaroak egin ditugu,



esate baterako, datuen babesteari, enpresa kudeaketari eta abarri buruzkoak...ia ia beste “ikasketa” batzuk izan dira. Oso garrantzitsua izan da erabakiak hartzeko eta abian jarri nahi genuen enpresa mota zehazteko. Gainera, gozame-na bat izan zen gainontzeko kideekin ideiak partekatzea, beraien *feed back*-ak edukitzea... orduan gure gurasoei ere iruditu zitzaizen gauza serioa zela. Kar, kar, kar...

Enpresak bere lehenengo urtea martxoan beteko du. Nolako esperientzia izan da orain arte?

Oso pozik gaude. Enpresariak gara! Ez genuen inoiz pentsatu geure lanaren buruak izatea eta orain ez genuke hori aldatuko. Benetan, uste dugu hartu dugun erabaki hobereana izan dela. Benetan gustatzen zaiguna egin ahal izatea, nahi dugun moduan, gure irizpideekin...Getxolaneko Coworkinetik lan egiten ari gara. Oraindik ikasteko asko geratzen zaigu, baina hobetzeko heziketa jasotzen segitzen dugu.

Zer eskaintzen du The RedMedia Productions enpresak?


Hurrengo alorretako zerbitzuak eskaintzen ditugu: Community Management, gizarte sareetan online bidezko komunikazioa, promozio-bideoak eta bideo-klipak, Prentsa Bulegoa, Gizarte Sareei buruzko aholkularitza, argazkilaritza eta RedMedia Music. Enpresa handiei eta txikiei eskaintzen dizkiegu gure zerbitzuak. Momentuz, bezero finko batzuk ditugu Getxon, Barakaldon, Bilbon... Denboraldi honetan Bilboko publicitate agentzia batekin egin dugu lan, merkatalgune batzuetarako promozio bideoak egin ditugu, Madrileko, Bartzelonako, Bruselako eta beste toki batzuetako bezero batzuekin *freelance* lanak...Arinak eta eraginkorrek gara. Epe labur eta ertaineko proiektutan lan egitea gustatzen zaigu, kontrola ditzakegunak, bezeroari zehazki nahi duena eskaini ahal izateko. www.theredmedia.com webgunean gaude.

Makillaje eta karakterizazio tailerrak, Inauterietarako

Martxoaren 3an eta 4an, Inauteriak ospatuko direla eta, bi tailer egingo dira euskaraz Algortako Gauegun gaztelekuan: makillaje eta karakterizazioa. Gazteria Sailak antolatuta, tailerrak dohainik egingo dira eta 11 eta 17 urte bitarteko gazteei daude zuzenduta. Tailerretan jorratuko diren gaiak desberdinak izango dira, egunaren arabera: martxoaren 3an, ostirala, efektu bereziak eta karakterizazioa (zauriak, ebakiak, erredurak, urratuak, tiroak...) egingo dira, eta hilaren 4an, larunbata, makillaje fantastikoa izango da oinarri (izaki mitologikoak, maitagarriak, animaliak, pertsonaia desberdinak...). Tailerraren ordutegia, bi egunetan, honako hau izango da:



17:00etatik 22:00etara. Aldez aurretik izena eman behar da; eta eskabideak otsailaren 4tik aurrera aurkeztu ahal dira, honako bide hauek erabiliz: posta elektrnikoa ([\[getxo.eus\]\(http://getxo.eus\)\), internet \(\[www.getxo.eus/gazteria\]\(http://www.getxo.eus/gazteria\)\), Gazte Bulegoa \(Tangora Etxea, Algortako etorb., 98\) eta telefonoa \(94 466 03 53\). Tailer bakoitzean 15 leku egingo dira.](mailto:gaztebulegoa@</p>
</div>
<div data-bbox=)



Izen-ematea Euskadiko Gazteak Lankidetzan Programan

Datorren otsailaren 14ra arte egingo da zabalik 2017ko Euskadiko Gazteak Lankidetzan Programan izena emateko epea. 1987 eta 1995 urteen artean (biak barne) jaiotako 100 gazte parte hartu ahal dute. Garapenerako ekintzetan parte hartuko dute, hegoaldeko herrialdeetan, Amerika, Asia eta Afrikan, hain zuzen ere, eta esperientziaren iraupena hiru hilabetekoa da, ahal dela, uztailetik urrira arte.

Programa, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Gazteria eta Kiroletako Zuzendaritzak eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak antolatzen dute, Euskadiko GKE Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeen eta hegoaldeko herrien laguntzarekin.

Egutegia eta eskaerak

Martxoaren 6an, alde zuzeneko hautatutako pertsonen zerrenda plazaratuko da; martxoaren 10, 11 eta 12an, Barrian (Araba) egingo da alde zuzeneko hautatutako pertsonen topaketa; hilaren 15ean hautatutako lagunen eta erreserban geratzen diren zerrendak emango dira ezagutzera; eta hilaren 25 eta 26an, Barrian ere, informazio eta orientazio fasea egingo da, hautatutako pertsonentzat. Eskabideak bide presentziala erabilita edo online egin daitezke (eskabidearen formulario elektronikoa www.gazteukera.euskadi.eus gazte atarian dago). Helbide berean, bete beharreko baldintzak, konpromisoak, eta abarrei buruzko informazioa eskaintzen da.

BEKAK SARIAK

* **Auzolandegiak 2017 Kartel Lehiaketa**, Eusko Jaurlaritzak deituta 18 eta 30 urte bitarteko gazteentzat. Lelo bat beharrezkoa da programan parte hartzera animatzeko eta teknika desberdinak baliatu daitezke: argazkiak, marrazkiak, collageak, etab. Epaimahaiak lanen orijinaltasuna eta programarekin dute lotura baloratuko ditu. Lanak aurkezteko epea: otsailaren 20ra arte. Saria: joan-etorriko hegazkin bidaia bat Hego Amerikako herrialde batera. Informazio gehiago: <http://www.gazteukera.euskadi.eus/>

* **Artista gazteentzako Antonio Gala Fundazioaren 18 beka**. 18 eta 25 urte bitarteko gazteentzat dira bekak, haien sorkuntza lagundu eta sustatzeko: arte plastikoetan, musikan, literaturan, ... Kordobako Antonio Gala Fundazioaren egoitzan bederatzita hilabeteko egonaldian datza beka. Eskabideak: martxoaren 31ra arte. Informazioa: Fundazioa (tel.: 957 487 395) eta <http://www.gazteukera.euskadi.eus/>

Gaztelekuen programazioa

Otsaila

Hilak 2, osteguna: TAILERRA: BOTTLE CHALLENGE

Hilak 3, ostirala: MASTERCHEF LUDOTEKAREKIN: FRUTAZKO BOLOBANAK

Hilak 8, asteazkena, eta 17, ostirala: OSASUNAREN EGUNA

Hilak 11, larunbata: EKINTZA LUDOTEKAKO EKIN: MAHAI-FUTBOLA, PING-PONG ETA AIR HOCKEY TXAPELKETA

Hilak 16, osteguna: TOPAKETA

Hilak 17, ostirala: TAILERRA: CANNABIS

Hilak 18, larunbata: IRTEERA: AISIBIZIA EGUNA

Hilak 22, astezkena: TAILERRA: MANNEQUIN CHALLENGE

Hilak 24, ostirala: ESKULANA: KOADERNAKETA

Hilak 26, igandea: ZINEKLUBA

GauEgun
gaztelekua